



zumaia

6. zenbakia • 2009ko Abendua

ZU
udalaldizkaria



Zumaiako Udala



Alokairuzko etxebizitzak Puntanuetan

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak babestutako 285 etxebizitza eraikiko dituzte; horietatik 84 babestutako alokairuzkoak izango dira

aurkibidea

2 Multimedia txokoa

3 Inkesta

4 Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Alokairuzko etxeak Puntanoetan

12 Frontoiaren auzia

13 Joan-etorriaren elkartasuna

14 Euskararen Astea

15 Zumaiako ahotsak

16 Auzoak

17 Alderdien iritzia

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiako Udala

Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: Zumaiako Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 4.500 ale

L.G.: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Multimedia txokoa



Garaiak aldatu dira eta badira urte batzuk Zumaiako Udal Liburutegia ere behar berrietara egokitzeko urratsak ematen hasi zela. Ohiko liburu eskaintzaz gain, bideoteka, fonoteka eta hemeroteka zerbitzuak eskaintzen dizkie bertara gerturutzen diren herritarrei. 1.860 ikus-entzunezko osatzen dute bideoteka zerbitzua, 1.130 bideo daude helduen liburutegian eta 730 haurren. Horrez gain, fonoteka zerbitzuak 300 diskatik gora ditu eta hemeroteka zerbitzuan, berriz, zortzi egunkariren urtebeteko zenbakiak kontsultatu daitezke.

Fonoteka eta bideotekako hiru ikus-entzunezko hartu daitezke astebeteko maileguan. Horrez gain, hemerotekako egunkariak kontsultatu daitezke eta aldizkariak maileguan hartzeko aukera ere badago, azkeneko zenbakia ez bada behintzat.

Liburutegiaren ohiko ordutegian izan ohi dira zerbitzu hauek erabilgarri.

Ordutegia:

Helduen liburutegia

Astelehenetik ostiralera: 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan: 9:30etik 13:30era.

Haurren liburutegia

Astelehenetik ostiralera: 16:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan: goizez 9:30etik 13:30era

Zer iritzi daukazu zuhaitzen kimaketa atzeratzeko erabakiaren gainean?



Jose Luis Urbieta

Guk baino hobeto jakin-
go dutenak egongo dira
baina azaro bukaera edo
abendua ondoren kimatu
daitezkeela uste dut. Ez
dut uste zuhaitzak epe hori
baino lehenago kimatu be-
harko zirenik. Beharrezkoa
iruditzen zait, hala ere, Ger-
nika parkearen bukaeran
dauden zuhaitzen adarrak
moztea. Beste aldea egina
dagoen bezala, eremu hor-
rek ere txukundu baten
beharra dauka.

*Los árboles que están al fon-
do del paseo Gemika sí que
necesitan un arreglo.*



Maria Isabel Etxabe

Ondo iruditzen zait Uda-
letxeak zuhaitzak gehiago
zaintzeko irizpideak kon-
tuan hartzea. Zuhaitza
gauza ona da eta gustura
hartzen dugu udaran hori-
en itzala. Beraz, kimake-
ta ere bere garaian egitea
hobe. Gainera, azaroan
egin dituen hego haizeekin
segituan bota dituzte hos-
to gehienak. Alemanian,
adibidez, bakoitzak berak
kimatu behar izaten du
etxe aurreko zuhaitza.

*Me parece correcto que se
aprecien criterios para cui-
dar más a los árboles.*



Eugenio Diaz

Egokia iruditzen zait kimake-
ta atzeratzeko Udalak har-
tu duen erabakia. Egia da
horrek lan gehiago ekarriko
duela berekin, kale garbiki-
tako arduradunek lan gehia-
go izango baitute zuhaitzeta-
tik eroritako hostoak jasotzen.
Eta baliteke jendeak horren
inguruan kexa adieraztea,
baina dena ezin da. Zuhai-
tzari ez dio mesederik egiten
oraindik izerdia botatzen ari
dela kimatzeak eta, beraz,
neguan egiten bada hobe.

*No es conveniente podar
los árboles cuando toda-
vía están con la savia.*



Jone Zubiaurre

Orain artean, garai honeta-
rako herriko zuhaitzen ki-
maketa eginda egoten zen,
baina ez dut uste orain ere
hala egiten jarraitu beharko
zutenik. Gainera, nire ustez
zuhaitzetatik eroritako hos-
toek ez dute enbarazurik
egiten kaleetan. Balora-
tu beharreko elementuak
dira zuhaitzak, zaindu eta
kimatu beharrekoak. Des-
kantsuan daudenean ki-
matzeak lagunduko diela
pentsatzen dut.

*Los árboles son elementos
que hay que cuidar y mimar,
también a la hora de podar.*

udala zuzenean



Udal gobernura iritsi ginetik bi urte eta erdi igaro diren honetan, zenbait aldaketa izan dira Udaleko gobernu batzordearen osaketan. Zoritxarrez, zenbait momentu deseroso bultzatzea tokatu zaigu azkenaldi honetan, baina oztopoak oztopo, udal gobernuak orain bi urte abiaraziko aldaketa politikoaren aldeko urratsak ematen jarraitu nahi du, adostasunak bilatuz eta kontsentsuak konpartituz. Gobernukide garenok orain bi urteko ilusio berdinarekin jarraitzen dugu lanean, seguru baikalde zumaiar gehien babesa daukagula.

En esta fase de madurez que ofrecen dos años y medio de trabajo en el gobierno municipal, ciertos cambios han variado la composición del gobierno municipal. Desgraciadamente, nos han tocado vivir momentos comprometidos pero aún así, el gobierno municipal sigue comprometido en dar pasos en relación al cambio político iniciado hace dos años. El gobierno seguirá trabajando en esa dirección, compartiendo ilusiones y elaborando consensos beneficiosos para el municipio, puesto que sabemos que tenemos el apoyo de la mayoría de los y las zumaiarras.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Argazkian, Zumaia emakumeak eta haurrak ageri dira, antxoak garbitzen ari dira kalean.

En la fotografía se puede ver un grupo de mujeres y niños limpiando anchoas en la calle.



1947. urtekoa da argazki hau, Zumaian uholdeak gertatu zirenekoa. Argazkian bi mutiko ageri dira txaluparekin bizilagunei laguntzen.

En el año 1947 se produjeron inundaciones en Zumaia. Esta fotografía recoge el momento donde dos jóvenes ayudan a los vecinos con una barca.

Herritarren ahotsa buzoietan



www.zumaia.net

Sugerencia

Barrera arquitectónica, puente jorobado

Dado el gran movimiento que se produce en el puente pequeño (llamado popularmente jorobado), gente andando, corriendo, paseando, en bici, con coches de niños, personas mayores, etc, y la estrechez y cuesta que tiene, sería necesario hacer uno con las mismas características que el nuevo del polideportivo que une con Axular, y por supuesto a la misma altura que la calle, es una barrera arquitectónica que hay que quitar ya.

Respuesta

El Ayuntamiento está trabajando para que este paso para peatones se adecue a los criterios de accesibilidad. Para ello, el consistorio posee una partida para redactar el proyecto y ejercer dicha labor. En estos momentos, el Ayuntamiento está dirigiendo un proceso de adjudicación del proyecto y también se han dirigido ciertos contactos con el Gobierno Vasco. Una vez esté diseñado el proyecto, el objetivo será ejecutar la obra en el 2010.

Sugerencia

Selva en la calle San Jose

Buenas tardes. En frente de los portales 31, 32 y 33 de la citada calle, se encuentra una zona de maleza y vegetación que hace años no se corta ni se poda. La semana pasada estuvieron los de Kimu bat

por la calle pero a todo este tramo no le hicieron ni caso. Es un foco de insectos y ratas por lo que exijo que el ayuntamiento tome cartas en este asunto, ya que la última vez que lo podaron fue hace por lo menos 8 años y era yo creo por tema de elecciones. Por último recordarles que esta calle también es del pueblo de Zumaia, ya que parece que hace años que está olvidada. Gracias y saludos.

Respuesta

El Consistorio ya ha tomado en consideración la sugerencia y ya ha puesto el mecanismo para la limpieza y poda de esta zona de vegetación. Somos conscientes de la situación en que se encuentra el barrio y nos gustaría poder acometer una reurbanización que necesita. Se han acometido obras en diversos barrios del municipio (Jadarre, Narruondo, Basusuta...) y en este momento no se pueden hacer más. Pero sí que en un futuro próximo realizaremos un proyecto integral en el barrio.

Iradozikuna

Papera birziklatzeko edukiontzia

Dagoeneko bada egun batzuk papera birziklatzeko kontainera beteta dagoela.... Mesedez, hustea eskatzen dut denok ondo errezikla dezagun! Mila esker

Erantzuna

Birziklatzeko jarrita daude edukiontziak kudeatzeko ardura Urola Kostako Mankomunitatearena den arren, ondo dago horrelako egoerak errepikatuz gero Udalari adieraztea. Kasu honetan ere, Udala jarri da harremanetan Mankomunitatearekin eta konpondu dute arazoa.

Iradozikuna

Kanposantuko argiteria

Joan zen urtean, negu garaian, ilun zegoela, gure ahizpa bat lurperatu genuen kanposantuan. Zailtasunak izan genituen bertan ziurtasunez mugitzeko argia zeha-

ro eskasa baitzen. Egunero beharrezkoak ez badira ere, herritarrak inor lurperatzen joaten direnean, argi bereziak piztea komeniko litzateke, fokuren batzuk edo... Lurperatzea amaitutakoan nahikoak izango liriteke ohiko argiak. Beharbada hobekuntzaren bat egingo zen aurten egoera hori konpontzeko. Mila esker.

Erantzuna

Udala jarri da harremanetan dagoeneko lurperatze lanen arduradunekin eta horrekin batera, arazoari irtenbide bat ematen ahaleginduko da. Ildo beretik, Udalak eskerrak eman nahi dizkizue jazoera horren berri emateagatik, herritarrek egindako ekarpenek herriko zerbitzuak hobetzen laguntzen dutelako.

Iradozikuna

Autokarabana eta karabanentzako aparkalekua

Dagoeneko konturatuko zineten herrian gero eta autokarabana eta karabana gehiago daudela aparkatuta eta hauek eraso bat baino gehiago jasan dituztela. Horretarako eskatzen dizuet ea ez den posible hauentzako parking bat zabaltzea, itxia eta segurtasun minimo batzuekin Jose M^a Korta poligonoko partzela batean. Zarautzen ere badaukate halako zerbitzua Aztin. Printzipioz kamioientzako zena orain ere karabanak eta autokarabanak sartzen dituzte, hilean 40 euro kobratuz. Nire us-tez horrela sakabanaturik dauden karabana eta autokarabana guztiak leku berean egongo liriteke. Mila esker arretagatik.

Erantzuna

Egia da tipologia honetako gero eta ibilgailu gehiago ikusten direla herrian aparkatuta. Udalak, hala ere, eta arazoaren dimensio erreala behar bezala kuantifikatzeko ibilgailu horiek dituzuenoi elkartzeko eskaria egin nahi dizue. Erantzunak eman ahal izateko, eskariak definizio maila zehatzagoa behar duela dago Udala. Nahi duzueneko irekita izango dituzue udaletzeko ateak.

Parte hartuz herria aberastu



Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen prozesuaren bidez, ekarpen ugari jaso ditu Zumaiaiko Udalak dagoeneko. Urrian abiatu zen prozesua eta auzokako, arlokako eta teknikarien arteko bilerak egin dira gaurdaino. Ia ehun herritarrek parte hartu dute prozesuan eta 150 proposamenetik gora jaso dira. Estalitako gune baten beharra, Alde Zaharraren dinamizazioa, hirigintza politikaren gaineko hausnarketa, zaintza zerbitzua edota euskara arlokoKO sare sozialaren osaketa dira, aurtengo prozesuan jaso diren ekarpenetako batzuk.

Orain, proposamen horiek herriak dituen beharren arabera lehenestea izango da eragile guztien zeregina. Horretarako, abenduaren 14an egingo da Aurrekontu Batzorde Herritarra udaletxean. 19:00etan hasiko da batzarra eta prozesuan parte hartu duten herritar zein eragile guztiak daude gonbidatuta.

El proceso de presupuestos participativos promovido por el Ayuntamiento de Zumaia ya dispone de numerosas aportaciones. Ahora, será el momento para priorizar todas esas contribuciones y para ello, el día 14 de diciembre se celebrará la Comisión Ciudadana sobre los presupuestos.

Surfeko lokala



Herriko surfelariak laster izango dute erabilgarri euren jarduerarako lokala Zumaian bertan. Zumaiaiko Udalak egokitu du jada Larretxo auzategian Surfeko lokala. Instalazio guztia eginda dago eta falta den bakarra surfzaleekin hitzarmena sinatzea da lokalaren lagapena gauzatu ahal izateko. Datozen asteetan egingo da hori eta orduan zabalduko da lokala.

Aurrerantzean, 145 metro karratu erabilgarri dituen lokala erabili ahal izango dute herriko surfelariak. Honako azpiegiturek osatzen dute: erabilera anitzeko gela, bulegoa, aldagelak dutxekin, neska eta mutilentzako komunak, eta surfeko oholak eta bestelako materiala gordetzeko biltegia. Udala arduratu da obra zuzendaritza eta instalazio osoaren egokitzapenez eta lanak aurrera ateratzeko, 157.318,92 euro bideratu dira.

Los surfistas de Zumaia pronto podrán hacer uso de un local expresamente acondicionado para ellos. El Ayuntamiento ya tiene preparada una infraestructura en el barrio Larretxo donde los surfistas podrán gozar de las instalaciones que dispone. El local cuenta con 145 metros cuadrados útiles y dispone de una sala multiusos, una oficina, vestuarios para chicas y chicos y un almacén para guardar las tablas y otro tipo de materiales.

Bizilagun berriak Torreberri



Torreberri eraikinak bizilagun berriei harrera egin die. Orain artean, Zumaiaiko Musika Eskolak erabiltzen zituen bertako instalakuntzak, euren egoitza, Ubillosekoa txiki geratu zitzaielako. Orain, Musika Eskolaz gain, herriko gazteen topalekua ere bada Torreberri, bertan kokatu baita Zumaiaiko Gaztetxea. Zumaiaiko gazte guztiak elkartu eta ilusio zein arazoak konpartitzeko gune bat dute orain eta dagoeneko hasiak daude zenbait ekimen antolatzen.

Zumaiaiko Musika Eskolak, berriz, eraikin honetan eskaintzen dituzten dantza eskolak. Egun, ehun pertsonatik gora ari dira dantza eskolak jasotzen eta aurrera begira, arte espresio desberdinen inguruko ikastaroak antolatzeko asmotan direla jakinarazi dute Musika Eskolako kideek. Aurrerantzean, eraikin batek elkartuko ditu musika eta dantza eskolak eta Gaztetxea.

El edificio municipal denominado Torreberri dispone de nuevos vecinos, ya que el Gaztetxe de Zumaia se encuentra en este edificio desde el día 16 de octubre. Los chavales ya gozan de un centro donde puedan compartir sus ilusiones y además, aseguran que hay buena sintonía con la escuela de música de Zumaia que también prescinde de esta infraestructura para dar las clases de baile.

Anbulatorio ingurua hiritartuta



Azaro hasieran inauguratu zituzten anbulatorioaren inguruko hiritartze-lanak. Berrurbanizazio guztiak 755.000 euroko aurrekontua izan du eta Agirrezabalaga alkatearen esanetan, “anbulatorio eta kirolgunearen ingurua oinezkoentzako eta auzotarrentzako lehenestea izan da helburua”.

Hiritartze-lan hauek hiru fasetan banatuta egin ditu Udalak eta besteak beste, anbulatorio aurrean egindako plazak, Basadi kaleko bidegorriak eta anbulatorioaren atzekaldeko hiritartze-lanek ezaugarritu dute proiektua. Ildo beretik, haurrentzako jolasgune berria egokitu berri da Basadi kalean. Lehengo jolastokiaren eremua handituta, 440 metro karratuko azalera dauka jolasgune berriak.

A principios de noviembre fueron inaugurados los trabajos de reurbanización de los alrededores del ambulatorio de Zumaia. La obra ha traído consigo la habilitación de una plaza, un bidegorri en la calle Basadi, y adecuaciones en la calle que está detrás del ambulatorio. La obra ha contado con un presupuesto de 755.000 euros, incluido el nuevo parque infantil que se pretende construir a finales de este mismo mes. Según el alcalde, “el objetivo ha sido priorizar los intereses de los peatones y vecinos de la zona”.

Etxebizitza berriak Puntanoetan

Babestutako 285 etxebizitza egingo dituzte Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Puntanoetako lurretan; horietatik 84 babestutako alokairuzkoak izango dira.

El Ayuntamiento de Zumaia y el Gobierno Vasco construirán un total de 285 viviendas protegidas en Puntanoeta, de las cuales 84 serán de alquiler protegido.



Irudian, Zumaia Lantzenek sustatuko dituen etxebizitzaren argazki-muntaia.

datozen urteetan bizilagun berriak izango dira Puntanoeta auzoan. Izan ere, babestutako 285 etxebizitza egingo dituzte Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Puntanoetako lurretan. Etxebizitza guztiak babestutakoak izango dira eta batzuk Eusko Jaurlaritzak egingo ditu eta besteak, berriz, Udalak. Bi administrazioak proiektu honen inguruko hitzarmena sinatzear daude eta akordioaren arabera, Udalak lurrak emango dizkio eta Jaurlaritzak izango da 137 etxebizitzaren eraikuntza sustatuko duena.

Udalaren bitartez, Zumaia Lantzenek sustatuko ditu 148 etxebizitza: horietatik 101 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira eta 47 tasatu municipalak. Urbanizazio proiektua idatzita dago jada eta orain, Urbanizatzeko Jarduketa Programa eta errepartzelazioa zehazten ari

dira. Aurreikuspenen arabera, datorren urtean jada dokumentazio guztia prest izango da eraikitzen hasteko.

Ube S.L. Arkitektoen Estudioa izan da Zumaia Lantzenek sustatuko dituen etxebizitzaren proiektu arkitektonikoa garatu duena, eta azaldu dutenez, “gaur egungo bizimodura egokitutako arkitektura eredua erabili dute proiektua idazterako orduan. Izan ere, arkitektura mota honek malgutasuna, eta egokitzapen eta aldaketerako aukerak eskaintzen ditu”. Diseinuaren aldetik, berriz, jasangarritasun irizipideak kontuan hartu dituztela gaineratu dute: “irizpide horien arabera zehaztu dira etxebizitzaren antolamendua eta baita fatxaden konfigurazioak ere”. Ildo beretik, proiektuaren fase desberdinetan, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko etxebizitzak modu jasangarrian

eraikitzeko prestatutako gida erabiltzea proposatu dute.

Gainerako 137 etxebizitzaren eraikuntza Eusko Jaurlaritzak sustatuko du. Horietatik 42 etxebizitza alokairu sozialekoak izango dira; beste 42 babes ofizialeko alokairuzkoak; eta gainerako 53 salmenta bidezko babes ofizialekoak izango dira.

Duela urte eta erdi hasi ziren Udala eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen honi buruzko lehenengo hartu-emanak izaten. “Garai hartan Jaurlaritzaren gobernuan zeuden ordezkariak herriko planeamendua azaldu genien eta eremu honetan alokairu sozialeko etxebizitzak egiteko aukerak aztertzen hasi eta zirriborroak egin genituen”, azaldu du Iñaki Agirrezabalaga alkateak. Gasteizko Gobernu aldaketarekin, gaiari berriz heldu zion Udalak eta hilabeteetako hartu-emanen



Zumaia Lantzenek sustatuko dituen etxebizitzaren beste irudi bat.

ondorioz, lehen egindako zirriborroetatik ezaugarriak zehaztera pasa dira.

Harreman horien fruitua izan da hitzarmen hau. Akordioaren arabera, Udalak lurra salduko dizkio eta Jaurlaritza izango da etxebizitza hauen eraikuntza sustatuko duena. Horrekin batera, Jaurlaritzak 1,4 milioi euro (+BEZa) ordainduko dizkio Udalari lurren truke, eta diru horrez gain, etxebizitza horien azpian eraikiko diren lokal komertzialak Udalari eskuetan utziko ditu. 252.000 eurotan (+BEZa) daude baloratuta lokal horiek. Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziaren arabera, “orain artean auzoan ez dauden zenbait zerbitzu eskaintzeko baliagarriak izango dira Udalak jasoko

dituen lokal horiek”.

Aurreikuspenen arabera, urtea bukatu aurretik sinatuko dute Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena. Azaroaren 12ko Zumaia Lantzenen Administrazio Kontseiluan aho batez onartu zuen Udalak akordioa eta Jaurlaritza ere azkeneko prozedurak zehazten ari da. Udal gobernuko ordezkariak azaldu dutenez, “Eusko Jaurlaritzaren asmoa hiru partzelatako etxebizitzak lehenbailehen eraikitzen hastea da”.

Ekipamendu dotazionala

Zumaia Lantzenek eta Eusko Jaurlaritzak erabiliko dituzten sei partzelez gain, erabilera publikora bideratutako zarpigarren partzela bat dago Puntanoetan, eta ber-

tan etxebizitza gehiago egitea aztertzen ari da Eusko Jaurlaritza. Apartamentu dotazionalak egitea da asmoa: gazteak independizatzeko alokairuzko etxebizitzak izango liratezke, aldi baterakoak, eta 40 eta 60 metro koadro artekoak. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egindako hitzarmenean ere begiztatzen da aukera hau, baina azterketa gisa. Momentuz, lur horiek arkitektonikoki bideragarriak diren aztertzen ari da Eusko Jaurlaritza.

Urbanizazio berriaren helburuak


Etxebizitzak eraikiko dituzten eremuaren hiritartze lan guztia Zumaia Lantzenek egingo du eta Eusko Jaurlaritzak, hiritartutako partzelak erosiko ditu. Urbanizazioak helburu bikoitza duela

el barrio Puntanoeta contará con nuevos vecinos próximamente, ya que el Ayuntamiento ha anunciado que en los próximos años se construirán 285 viviendas protegidas en seis parcelas de Puntanoeta. De esas 285 viviendas, 148 las construirá el propio Ayuntamiento a través de Zumaia Lantzen, 101 serán viviendas de protección oficial, y las restantes 47 serán viviendas tasadas municipales.

El proyecto arquitectónico de las viviendas promovidas por Zumaia Lantzen lo ha llevado a cabo el estudio de arquitectos Ube S.L., y según han señalado, “se ha proyectado una arquitectura diseñada para la vida contemporánea, aportando flexibilidad y condiciones favorables a la adaptación y al cambio”. Desde el diseño, anuncian que “se han tenido en cuenta criterios de sostenibilidad, determinando la distribución de las viviendas, así como la configuración de las fachadas”.

Ya se ha redactado el proyecto de urbanización de las seis parcelas, y se están elaborando la reparcelación y el programa de urbanización. El consistorio prevé que para el próximo año estará preparada toda la documentación para comenzar la edificación.

Etxebizitzak eraikiko dituzten lur eremua.



Puntanoetako sei partzelen planoak.

jakinarazi dute Udaleko Hirigintza Saileko ordezkariak: “alde batetik, eraikin berrietara sarbide perimetrala ahalbidetuko duen bide berri bat egokituko da Txikiardiko biribigulnerako noranzkoan. Bestaldetik, berriz, eremu berriak parke edo eremu berde zabala izango duenez, lehendik eraikita dauden etxebizitzekin batera, hiri-boulevard baten ideia berreskuratuko da. Aurkupe bidezko eraikinak egingo dira Narruondoko eremu hezeetara begirako ertzetan eta ‘oinezkoen kale’ izaera azpimarratuko da, gero Narruondoko loturarekin jarraitzeko”.

Horrekin batera, babes ofizialeko izaerako etxebizitzaren ordenazioa, honela ezaugarrituko dela azaldu

dute: “etxebizitzek garaje planta bat izango dute, bost solairu gora eta ganbara. Ildo beretik, beheko solairua lokal komertzialetarako erabiliko dira. Orain artean auzoan ez zeuden zenbait zerbitzu eskaintzeko baligarriak izango dira Udalak jasoko dituen lokal horiek”.

Sailetik jakinarazi dutenez, dagoeneko aurre lanketa batzuk eginak daude. Antza denez, eremu honetako lurrak ez dira oso onak eta azterketa geotekniko bat egin da jada, hartu beharreko neurriak zehazteko.

Narruondotik zuzeneko sarbidea

Urbanizazio lan horien barnean, zubi berri bat eraikiko da Puntanoeta

eta Narruondo artean. Zubiaren plataformak autoentzako bi errei izango ditu eta lau metroko oinezkoentzako bi pasabide. Horietako batek, gainera, bidegorria izango du. Zubi berriaren proiektua idatzita dago jada eta Zumaia Lantzenen Administrazio Kontseiluaren onarpena jasota du. Ildo beretik, zubiak Kosta Legearen arauak errespetatzen dituela aipatu dute. Hurrengo urratsa lanaren exekuzioa esleitzea izango da.

Eskariak Etxebidaren bitartez

Hitzarmena sinatu ondoren jakinaraziko da Puntanoetako etxebizitzetarako zerrendak noiz irekiko diren, eta behin eskariak aurkezteko epea zabaltzen denean, “lehentasuna zumaia-errek” izango dutela gogorara-

de las seis parcelas de las que consta esta fase, el Gobierno Vasco se encargará de tres, y construirá un total de 137 viviendas: 42 se destinarán a alquiler social, 53 serán viviendas de protección oficial, y las restantes 42 serán viviendas de protección oficial para alquiler. El proyecto se ha logrado gracias

al acuerdo que el Ayuntamiento de Zumaia ha alcanzado con el Gobierno Vasco. El alcalde de Zumaia Iñaki Agirrezabalaga recordó que las primeras gestiones con la consejería de vivienda comenzaron hace un año y medio: “tras varias reuniones entre las dos administraciones, nos señalaron que estaban dispuestos a promover viviendas de alquiler”.

El concejal de urbanismo Andoni Etxaniz señaló que, gracias a este acuerdo, “el Gobierno Vasco realizará una inversión muy importante en Zumaia valorada en 2,4 millones de euros. Se trata de un proyecto deficitario económicamente, pero necesario a nivel social”.



Urbanizazio berriaren baitan eraikiko den zubiaren argazki-muntaia.

zi du Etxaniz Hirigintza zinegotziak. Izena emateko Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan (Etxebiden) alta eman beharko da aldez aurretik. Aipatutako Erregistro hori etengabe dago irekita eta Etxebidek egindako etxebizitza babestuek esleitzeko zozketa guztietan parte hartzeko aukera emango du, betiere kasu bakoitzean ezarritako balditzak betetzen baditu eskatzaileak. Era berean, zuzenean zerrenda honetara pasako dira lehendik Zumaian eskaria eginda zeuden herritar guztiak.

“Proiektu aitzindaria” Zumaiarako

Alokairu sozialeko etxebizitzak aurrerikusi dituen lehenengo proiektua izango da Zumaian Puntanoetakoa. Udal ordezkarien esanetan, “diru ekarpen garrantzitsuak behar ditu izaera sozialeko etxebizitzaren egikaritzeak, eta Zumaian inbertsio esanguratsua egitea lortu dugu. 2’4 milioi eurotik gorako inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak; inbertsio defizitariora izango da ekonomikoki, baina sozialki guztiz aberatsa herriarentzako”.

Egitasmoa datutan:

Etxebizitzak:

285 etxebizitza. Horietatik 148 etxebizitza Udalak egingo ditu, eta 137, berriz, Eusko Jaurlaritzak.

Motak:

Udalak babes ofizialeko 101 etxebizitza egingo ditu eta 47 tasatu municipal; Eusko Jaurlaritzak, 42 alokairu sozialekoak, 42 babes ofizialeko alokairuzkoak, eta 53 salmenta bideko babes ofizialekoak. Horrez gain, erabilera publikora bideratutako eremuan, apartamentu dotazionalak egitea aztertzen ari dira.

Eskariak aurkezteko:

Hitzarmena sinatu ondoren jakinaraziko du Udalak eskariak ze epetatik aurrera eta non aurkeztu beharko diren. Hala ere, lehendik Udaleko erregistroan izena emanda dauden guztiak zerrenda honetara pasako dira.

el consistorio dará a conocer la fecha en que se iniciará la inscripción una vez firmado el acuerdo con el Gobierno Vasco. Para acceder a la promoción de estas viviendas, primero se deberá dar de alta en el Registro de de Solicitantes de Vivienda del Gobierno Vasco (Etxebide). Dicho registro está abierto de forma permanente y da acceso a todos aquellos sorteos de adjudicación de vivienda protegida llevados a cabo por Etxebide, siempre y cuando se cumplan las condiciones establecidas en cada caso.

Según comentan Agirrezabalaga y Etxaniz, “estas viviendas estarían destinadas prioritariamente para vecinos de Zumaia, por lo cual, las personas que ya están registradas en la lista municipal, entrarán directamente en la lista de Etxebide”.

El proyecto será pionero para el municipio de Zumaia, ya que es el primer proyecto que contempla la edificación de viviendas para alquiler protegido. “Ello posibilitará que gente que hasta ahora no podía acceder a una V.P.O, ahora lo pueda hacer, pagando el 30% de sus ingresos”.

Frontoiaren auziak argia ikusi du

Urriaren 21ean sinatu zuen Zumaiaiko Udalak Ardantzabideko lurren lagapenaren inguruko eskritura publikoa Zumaiaiko notari-tzan. Idatzi horren arabera, Ardantzabide auzoko zazpigarren partzela da Udalak lortu duena eta Arau Subsidiarioetako 34. artikulua aplikatuz, 40 etxebizitza egin ahal izango dira lur horietan. Azken hilabeteetan negoziatzen aritu diren lagapen horrek bermatu ahal izango du Zumaiaiko frontoiaren egikaritzea.

Orain, lur horretan egingo diren etxebizitza proiektua definitu eta dauden eskaintzak aztertzen ari da Udala. Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziaren arabera, “etxebizitza librean merkaturia nahikoa geldituta badago ere, promotoreek beste tipologia bateko etxeak egin nahi dituzte orain eta horrek nolabait bat egiten du gure irizpideekin”. Oraindik lantzen ari diren gaia den arren, “etxebizitza politika sozialago” bat aplikatzen saiatuko direla jakinarazi du: “Gaia sakon aztertu beharko dugu, baina saiatuko gara frontoiaren egikaritzea ahal den azkarren egi-

ten, batetik, eta babestutako etxebizitzaren bermea lortzen, bestetik”.

Soka luzeko korapiloa

Frontoiaren auziak egonezina sortu du azkenaldian herrian. 2003. urteko otsailean sinatu zuen Udalak Salbide S.L promotorearekin Zumaian frontoi berri bat egin ahal izateko akordioa. Hitzarmen haren bitartez, 525 milioi pezetako frontoia egitera behartu zen promotorea eta ordainean, 35 etxebizitza libre gehiago egiteko eskubidea jaso zuen. Hala, lehen etxebizitzetako erabilera lizentzia eman eta sei hilabetera amaituta behar zuen frontoiak, eta hala ez bazen, frontoiaren kostuaren pareko bermea aurkeztu behar zuen Salbidek.

Udal gobernuaren arabera, urte hartan sinatu zen hitzarmenak, ordea, “egoera ekonomiko ona” bakarrik aurreikusten zuen: “Eta orain zer gertatu da? Egoera ekonomikoak baldintzatuta, etxe guztiak saldu ez, eta promotorea ez da hasi ere egin frontoiaren exekuzioarekin. Gaine-

ra, bermea aurkezteko modurik ere ez dauka”.

Korapiloa askatze bidean jarria du Udalak orain. Joan den urriaren 8ko ezohiko udalbatzan onartu zen ezker abertzalearen, EAren, EB-Aralarren eta PSE-EEren aldeko botoekin lurren lagapena, EAJK abstentzioa bozkatu zuen. Gobernuak ustez, “sortutako baliabide berri horiei esker, posible izango da Zumaiaiko behar duen frontoia egitea”.

el 21 de octubre firmaron ante notario el acuerdo entre el Ayuntamiento y Promociones Salbide. Según el anterior convenio, la promotora era quien tenía la obligación de construir el nuevo frontón, pero la crisis económica cambió las cosas. Según el nuevo acuerdo, la promotora cederá al consistorio dos parcelas en la zona de Ardantzabide y se obtendrán fondos para edificar el frontón en la zona de Puntanoeta.

Odieta eta Beheko Plazan aldaketak

Odietako etxebizitzaren kasuan, proiektuak zituen gabeziak zuzentzen ari da Udala. Izan ere, 2009ko uztailean Zumaia Lantzenen Administrazio Kontseiluan erabakitakoari jarraiki, obra zuzendaritza lehiaketa publikora atera eta enpresa esleitzailak egindako azterketaren arabera, ondorioztatu da proiektuak ez zituela Zumaiaiko Arau Ordezkatzaileak betetzen.

Urtea bukatu baino lehen lanak berriro abian izatea aurreikusten du Udalak: “oraingo honetan berme guztiak hasiko ditugu lanak, arau guztiak beteta

eta onartu beharreko proiektu guztiak onartuta”.

Beheko Plazako garajeei dagokionean, berriz, aldatu egingo da exekuzio sistema, “zuen koste altuagatik”. Hasierako proiektua exekutatzearen kostuak 8 milioi euroak gainditzen zituen, eta azken azterketen arabera, ez da beharrezkoa hainbeste diru xahutzea, garajeak egiteko beste aukera batzuk egon badaudenean”. Proiektuan egingo den aldaketak 1,6 milioi euroko aurrezpena ekarriko dio Udalari eta datorren urtean jada, hasita izango dira Beheko plazako garajeen lanak.

tal y como informaron a finales de octubre los responsables del gobierno municipal, habrá modificaciones en el proyecto de las viviendas de Odieta ya que un estudio ha desvelado que el proyecto promovido por Zumaia Lantzen en el 2005 incumplía las Normas Subsidiarias de Zumaia. Por otro lado, se disminuirá considerablemente el coste de la ejecución del parking subterráneo de la plaza Eusebio Gurrutxaga. Con esa modificación, el Ayuntamiento podría ahorrar hasta 1,6 millones de euros.

Joan-etorriaren elkartasuna

Aniztasuna lantzeko, “herritarren arteko topaketak” egingo dira abenduaren 14tik 19ra bitartean

g Gabon giroak elkartasun mezu eta sentipenak ekartzen ditu berekin. Zumaian, kolore ugari jantziko dute elkartasun hori, abenduaren 14tik 19ra bitartean, aniztasuna lantzeko ‘Herritarron topaketak’ ospatuko baitira.

Anitzak Ekimenaren bidez ari da lantzen Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila aniztasuna eta bizikidetzatza Zumaian eta programaren helburua herritarrak migrazioaren eta aniztasunaren gaian sentsibilizatzea da. Irati Anakabe Anitzakeko teknikariak azaldu duenez, “jakin bada-kigu inmigrazioak eragin zuzena izaten duela gure herrietako gizarte-egituran, eta jakina, baita Zumaian ere”.

Inmigrazioak sorrarazten duen aniztasuna balioan jartzeko programak honako helburuak ditu: batetik, Euskal Herrian zein Zumaian geratutako migrazioaren fenomenoaren ezaugarriak ezagutara ematea, eta bestetik, Euskal Herria eta Zumaia kanpotik datozenei erakustea. Horrekin batera, herritarrak migrazioaren eta aniztasunaren gaian sentsibilizatu nahi dira, “aniztasuna arazo bat baino, aberatsa den zerbait bezala aurkeztea da gure lehentasuna”.

Sentsibilizazio lan horren testuinguruan aurkeztu dituzte ‘Jatorri anitz, herri bat’ herritarren arteko topaketak. Gogoetarako, elkartzeko eta eztabaidarako gune bat sortu eta horren bidez elkar ezagutzeari izango da ekimenaren helburua.

Topaketez gain, Zumaia errealitatea eta bere biztanleriaren azterketa egiteko, diagnostiko kuantitatibo bat egin du Anitzak taldeak Udalak eskatuta. Azterketa horrek herriko errealitatea hobeto ezagutzeko eta ulertzeko balioko du eta aniztasun astearen baitan aurkeztu eta sozializatuko dira datuak.

Errealitate horretatik abiatuta, elkarren errespetuan eta aitortzan oinarritutako

politikak bultzatzea izango da orain helburua; pertsona guztien eskubide politiko, sozial, ekonomiko, linguistiko eta kulturalak bermatuz; eta udalerriko elkarbizitzan parte-hartzea ahalbidetuz.



Darahli elkarteak Saharara egindako bidaia.

Ostirala, elkartasun eta lankidetzatza eguna

Aurten hiru urte beteko ditu Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak eta Baleike Kultur Elkarteak antolatzen duten lankidetzatza programak eta aurten-goan, aniztasun astearen baitan kokatuko da. Horretarako, ostiralean, abenduaren 18an, elkartasun eta lankidetzatza eguna ospatuko dute. Gorka Zabaleta Baleike Kultur Elkarte zuzendariaren hitzetan, “aurten ere zumaiarrek garen bidean dauden herrialdeetan aurrera eramandako lankidetzatza proiektuak ezagutaraztea izango da helburua”. Bereziki, Darahli elkarteak joan den apirilean Saharara egindako bidaia izango da protagonista. Argazki erakusketak, bideoaren aurkezpenak, janari bilketak eta senidetze kanpainak ezaugarrituko dute proiektuaren lanketa. Horrekin batera, Nikaraguan aurrera eramandako proiektuaren inguruko argazki erakusketak ere egingo dute astearen baitan.

Egitaraua

Abenduak 16, asteazkena
18:00etan Topaketen hasiera.
18:30ean bideo emanaldia: ‘Gu ere bai’.
19:00etan hitzaldia: ‘Horrelakoak gara’.

Abenduak 17, osteguna
18:00etan ‘Riomundo’ liburuaren gaztelarazko argitarapenaren aurkezpena.
19:00etan hitzaldia: Hi Ikasi/Gu Hasi/Denok Hazi.

Abenduak 18, ostirala. Elkartasuna eta lankidetzatza eguna
17:30ean ‘Migrazioa eta internazionalismoa Euskal Herrian’.
18:00etan bideo emanaldia: Darahli 09, Zubiak Eraikitzen.
19:00etan mahai-ingurua: Hartu eta eman, herrien harreman.

Abenduak 19, larunbata
10:30-13:30: Tailerrak, ‘Emakumeak eta migrazioak’ eta ‘Afrikako perkusioa eta Txalaparta tailerra’.
11:00-13:00: Umeentzako Munduko Jolasak.
14:30ean herri bazkaria.
19:00etan poteo herrikoia.
21:30ean ‘Anitzak Hitzak’ kontzertua eta ikuskizuna.

d el 14 al 19 de diciembre Zumaia vivirá una semana llena de pluralidad y diversidad. Se trata de una de las actividades que ha previsto el Ayuntamiento para centrar un programa sobre la multiculturalidad dirigido por el grupo Anitzak. A lo largo de la semana se desarrollarán todo tipo de iniciativas, y el sábado, día 19 de diciembre, se celebrará el día de la diversidad. La semana coincidirá con el programa que pretende dar a conocer diferentes proyectos de cooperación de zumaiarros, dirigido por el departamento de Servicios Sociales junto con la asociación Baleike. Por lo tanto, los valores de la diversidad y la cooperación serán los protagonistas durante esta semana de diciembre.

Zumaian ere euskararen alde



Itsaskiroldegitik Kofradiaraino egin zuten saltaka herriko gazte zein helduek.

O hitura bilakatzen ari da Zumaian euskararen alde saltaka egitea. Aurten ere, saltaka hasi dute zumaierrek euskararen astea. Azaroaren 28an, Zumaian saltaka euskararen alde! zioen pankartaren atzean korrika eginez abiatu zituzten ekimenak. Korrika saioaren ostean, Kofradian hamaiketako egin zuten eta salda beroa hartuz, herriko bertsolari gazteek hartu zuten lekukoa. Ondoren, herri bazkaria izan zen Beheko Plazako Hogarrean, eta kantu saioa egin zuten bazkalostean.

Aste guztiaren baitan, askotarikoak izan dira euskararen alde egin

dituzten ekimenak: egunkariaren aldeko ekitaldiak, euskarazko filmeen proiektzioak, kontzertuak, jokoak, musika emanaldiak eta beste hainbat ekitaldi egin dira.

Euskararen egunean literatura protagonista

Gero eta sona handiagoa hartzen ari da Zumaia Euskara Zerbitzuak 23.enez abian jarritako Julene Azpeitia ipuin lehiaketa. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean egin zuten sari-banaketa ekitaldia eta Joseba Zubizarretak jaso du aurtengo sari nagusia. Xabier

Aldayk eskuratu du bigarrena, eta Asier Arakistainentzako izan da zumaier onenaren saria.

Aurten, 30 ipuin aurkeztu dira lehiaketara eta horietatik bi zumaierrek idatzi dituzte. Arakistainek 'Langile baten gogoetak' izeneko lana aurkeztu du eta lan mundua eta literatura uztartu ditu. Aurtengo lehiaketako epaimahaiko kideen arabera, "ipuinak oso erritmo ona du, kritika eta umorez josita dago eta bete-betean asmatzen du". Zumaian literatura zaletasuna bultzatzea du helburu ipuin lehiaketak eta urtetik urtera ugariak dira jasotzen diren lanak.



a semana a favor del euskera movilizó cientos de ciudadanos en Zumaia. El sábado, día 28 de noviembre, por ejemplo, la iniciativa 'Zumaian saltaka euskararen alde' recorrió el paseo Gernika hasta la Cofradía. A lo largo de la semana se han realizado diferentes actos a favor de nuestro idioma, y dentro del día nacional del euskera, el 3 de diciembre, se celebró la entrega de premios del concurso de cuentos Julene Azpeitia.

Zumaiako ahotsak sarean



Zumaiako ahozko ondarea eta herri-hizkera jaso, landu eta zabaltzeko helburuarekin Zumaiako ahotsak webgunea prestatu dute Zumaiako Udalak eta Badihardugu euskara elkarteak. Egitasmo honek gure kulturaren ondare baliotsu hori gordetzeko balioko du, agortzerik nahiko ez genukeen iturria baita.

2007 eta 2008 urteetan lantalde bat aritu zen Zumaiako Udalak eskainitako beka baten bidez herriko adineko jendeari hainbat elkarrizketa egin eta Zumaiako hizkera aztertzen. Aurten, Badihardugu elkarteak eta Zumaiako Udalak sinatutako akordioari esker, beste elkarrizketa batzuk egin eta transkribatu dira. 30 elkarrizketa egin dira dagoeneko, eta zenbait pasarte ikusgaidaude www.ahotsak.com/zumaia eta www.zumaia.net helbideetan.

Badiharduguk herriko jende nagusia elkarrizketatu du eta bideoz grabatu ditu elkarrizketak. Horrela, XX. mendeko bizimodua jaso eta gordeko dituen datu-base digitala sortzearekin batera, Zumaiako euskalkia aztertu eta herriko ahozko artxiboa antolatuta geratuko da nolabait.

Abenduaren 1ean aurkeztu zuten proiektua eta omenaldia egin zitzairen orain arte elkarrizketatu diren Zumaiako emakume eta gizonei. Nerea Epelde Hezkuntza eta Euskara zinegotziak azaldu zuenez, "Zumaiako Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkiet lan hau egin dutenei eta, batez ere, beren bizitzen zati bat kontatu diguten lekuko guztiei".

el pasado 1 de diciembre presentaron la iniciativa Zumaiako Ahotsak, página web que ha desarrollado la asociación Badihardugu junto con el Ayuntamiento de Zumaia. El objetivo ha sido recoger el patrimonio oral y la modalidad lingüística de Zumaia y salvaguardarlo. Las entrevistas se pueden ver en la dirección www.ahotsak.com/zumaia.

Natura 2000 sarea Zumaian



eusko Jaurlaritzak gidatutako Natura 2000 sareak Zumaia bisitatu du abenduaren 9tik 13ra bitartean. Zumaiako udalerria Natura 2000 Euskadiko sarearen kide da, beste

56 herrirekin batera, eta Europako biodibertsitatearen galera geldiaraztea xede duen proiektuan nola lan egin azaltzea da ekimen honen helburua. 'Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak' erakusketa Torreberri eraikinean kokatuko da eta erakusketaz gain, bisita gidatuak ere egingo dituzte. 695782497 telefonora deituta egin beharko da erreserba. Ekimenaren antolatzaileen arabera, "gizakia naturaren parte dela eta berak biodibertsitatea handitzea eragin duen arren, batzuetan bere galera ere ekarri duela ohartarazi nahi da ekimen honen bidez". Proiektua sakonago azaltzeko, hitzaldia eskainiko dute abenduaren 10ean, 19:00etan izango da erakusketa egongo den leku berean, Torreberri.

Natura 2000 Sarea erakuketa ibiltaria

Noiz: abenduaren 9tik 13ra bitartean.
Non: Torreberri eraikinean.

Orduetgia: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.
Hitzaldia: abenduaren 10ean, 19:00etan, Torreberri.

La exposición itinerante Red Natura 2000 estará en Zumaia del 9 al 12 de diciembre. Será una exposición en la que podremos reflexionar sobre los valores de la biodiversidad, ya que son la base de nuestra salud, prosperidad y calidad de vida.

El día 10 de diciembre, por su parte, ofrecerán una charla-conferencia para informar sobre el proyecto. La charla comenzará a las 19:00 horas, y será en Torreberri.

Ur-andela berria Artadin



Artadi auzoan kokatu dute deposito berria.

albiste berriak iritsi dira Zumaiaiko udalerraren baitako auzoetara. Udalak dagoeneko prestatuta dauka Artadi auzoan ur-andela edo deposito berria. 500 m kubikoko edukiera du biltegi berriak eta Artadi, Oikia eta Oikiako industriagunea hornituko ditu. Lehen, Artadi auzoa bakarrik hornitzen zuen deposito zaharrak eta gainerako bi eremuetara zerbitzu egokia eraman ahal izateko muga nabarmenak zeuden.

Behar horri erantzuna eman asmoz, maiatz bukaeran hasi zituzten ur-andela berria egiteko eraikitze lanak eta guztira, 262.651,19 euro kostatu da obra guztia.

Instalazio guztia bukatuta badago ere, ur-andela berria ez dute martxan jarri oraindik. Garbiketa eta saneamenduko Osakidetzak gidatutako protokolozko azterketak egiten ari dira momentu

hauetan eta beharrezko analisi guztiak egin ostean, aurki jarriko dute instalazio berria abian. Behin ur-andela berria erabilgarri dagoenean, zaharra hustu eta bota egingo dela jakinarazi dute Udaleko Hirigintza Saitetik.

Los barrios de Oikia y Artadi disponen de un nuevo depósito de agua para responder debidamente a sus necesidades. El Ayuntamiento ha concluido todos los trabajos de ejecución del nuevo depósito. Lo pondrán en funcionamiento una vez concluidos los trabajos protocolarios de sanidad que gestiona Osakidetza. El nuevo tanque tiene una capacidad de 500 metros cúbicos y abastecerá todo el entorno de Artadi y Oikia, y también la zona industrial de Oikia.

Ur-hornidura sarea Oikiarako



Bi linea berri aterata dira ur-andela berritik Oikiarako

artadi auzoan eraiki den ur-andela berriari jarraiki prestatu du Udalak Oikia auzorako ur-hornidura sare berria. Lehengo sare zaharkituta egoteaz gain, ez zegoen prestatuta ur emari handia garraiatzeko eta horrek mugak jartzen zituen Oikiako industriagunera behar bezalako hornidura zerbitzua eramateko.

Lan hauen baitan, Artadin eraiki den ur-andela berritik bi linea berri aterata dira ur-hornidurarako. Bat, Oikiaraino joango da eta bestea Oikiako industriagunera. Ur gordailu berriaren exekuzioak ahalbidetuko du ura presio egokiarekin bideratzea eremu horietara. Ildo beretik, hidranteak jarri ahal izango dira Oikian eta sute kasuetarako prestatuta izango da auzoa.

Lanak 284.959,96 euroko aurrekontua izan dute eta sare berria Artadiko ur-andela berriaren abiaraztearekin batera jarriko da martxan.

La nueva red de abastecimiento de agua para Oikia está conectada al nuevo depósito de agua de Artadi. La antigua instalación no estaba preparada para llevar el caudal de agua necesario, y existían carencias a la hora de abastecer el área industrial o preparar las superficies para posibles casos de incendio.

Se han proyectado dos líneas que parten del nuevo depósito: una se prolongará hasta el área industrial de Oikia, y la otra seguirá en dirección al barrio de Oikia. Del mismo modo, se colocarán hidrantes en la zona industrial de Oikia y en el barrio.



aspaldian zurrumurrua bazebilen zenbait zirkulutan, Udal gobernua ez zegoela eroso Pili Etxaberekin. Eta azkenean, azaro hasieran eginiko Udalbatza ez-ohikoan, Alkateak jada sinatuak zituen zenbait Dekretoren berri eman zuen.

Dekretoen arabera, Alkateak bere kargu eta erantzunkizun guztietatik kanporatu zuen Etxabe, Alkate-ordekotzatik, Udal Gobernu Batzordetik, Kultura, Turismo eta Merkataritza batzordeetatik.

Lehen ere gutxiengoan zen udal gobernua oraindik ere ahulezia haundiagoan utzi du erabaki honek. Hasieratik bost baziren udal-gobernua osatzen zuten zinegotziak (hamairutik, bost), orain berriz, lau kiderekin geratzen da. Eta lau hauen artean, Eusko Alkartasunak Zumaiako alkatetza mantentzeko asmoa azaltzen du, ordezkari bakarrarekin. Seguruenik ez da erraza izango Gipuzkoa osoan horrelako beste kasuren bat topatzea: ordezkari bakarra duen alderdi politiko batek alkatetza izatea.

Horrela dago gaur egun Zumaiako Udal Gobernu Batzordea: lau kide, hiru Talde Mistoan (lehen ANV-ko zinegotziak), beste bat, EA-rena, Alkate.

EAJk adierazi duen bezala, ez dagokigu guri beste alderdi bateko barne liskarrak baloratzea. Etxabe berak eta EA-k azaldu beharko lukete arazoa. Baina EA-k adierazitakoak ere ez gaitu asetu. Odon Elorzak hasieran lortu zituen botu kopuru berdinak hautu omen zuen Iñaki Agirrezabalaga orain bi urte t'erdia. Ez da adibidea plazaratzen duten lehen aldia. Alkate izendatzeko lehen Pleno hartan ere Agirrezabalaga berak erabili zuen argudioa izan zen, bere aukeraketari zilegitasun plus bat emateko edo. Odon Elorza al da abertzaleon eredu?. Akaso EA-k, Agirrezabalagaren eskutik, Odon-en antzera, beti-betirako alkatea du aburu. Baina Odon berak ere ez du inoiz bere buruarekin alkate izatea lortu.

EA-ren hitzetan, egoera berri honetan orain dela bi urte herriak adierazi omen zuen aldaketaren beharrari heltzen dio. "Aldaketak" Zumaiako Udal Batzan gertatzen ari direnak: ANVkoak, Misto; EAKo bitik bat "no adscrito", eta EBko zen zinegotzia berriz, Alternatiba.

Aldaketa ala nahaspila?



duela urtebete Zumaiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza Sailaren arteko hitzarmenaren bitartez, jakinarazi genuen aurrerapausoak ematen ari ginela Zumaiaren lehendabiziko aldiz alokairuzko etxebizitza babestuak sustatzeko. Zorionez edo zoritxarrez, ordea, Eusko Jaurlaritzan gobernua aldatu egin zen, eta ordura arte egindako lanak gelditu egin ziren. Gobernu berria osatuta, segituan jarri ginen harremanetan haiek, eta zorionez harreman horien ondorioz **hitzarmena etorri da**. Hitzarmen horren bitartez, Zumaiako Udalak Eusko Jaurlaritzari Puntanoetako hiru partzela salduko dizkio, Jaurlaritzak hauek egin ditzan: lehen partzelan, alokairu sozialeko 42 etxebizitza; bigarren partzelan, babes ofizialeko 42 etxebizitza alokairuan; azkenik, hirugarrenean, babes ofizialeko 53 etxebizitza salmentan. Beraz, hitzarmen horri esker, **84 etxebizitza alokairuzkoak izango dira Puntanoetan**, eta Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du, gainera, gehiago egin daitezkeen aztertzeko.

84 etxebizitza horiek alokairuzkoak izateko, Eusko Jaurlaritzak 2.340.000 euro bideratuko ditu eta Zumaiako Udalak 411.000 euro; beraz, **guztira 2.750.000 euro** erabiliko dira. Etxebizitzak ez saltzea, alokatzea, **ekonomikoki berez defizitariora da, baina sozialki guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu**, badaudelako etxe horiek alokairuan hartuko lituzkeen zumaiarrak.

Agindu genuen etxebizitza-politika berri baten alde lan egingo genuela eta horretan ari gara; krisiak eta egoera ekonomikoak ez du askorik laguntzen horretan, baina poliki eta sendo egiten ari gara urratsak, **espekulazioari ateak ixteko eta etxebizitza behar duten guztiei (eta batez ere lortzen zailen dutenei) erantzunen bat emateko**. Momentuz, 84 erantzun lortu ditugu. Eta etorkizuneko gure erronketako bat izango da Zumaiako etxebizitza hutsei astindu bat eman eta Udalak bitartekari- edo eragile-lanak egitea.



Zumaian alokairuzko etxeak egitera goaz. Hala esan genuen hauteskundeetan eta hala egingo dugu. Guztira ia 90 etxebizitza alokairuan.

Eusko Jaurlaritzarekin hemendik gutxira adostera goazen hitzarmenaren bitartez, Puntanoetako bigarren fasean Eusko Jaurlaritzak 137 etxebizitza egingo ditu, horietatik 85 alokairuan. Horrez gain, 1.440.000 euro (+BEZa) emango dizkio Udalari lurren truke. Bestetik, 252.000 eurotan (+BEZa) baloratutako lokal komertzialak ere Udalaren esku geratuko dira. Aldiz, Udalaren esku geratuko da beste horrenbeste etxebizitza egiteko aukera, nahiz eta hauek alokairuan ez izan.

Dudarik ez dago, orain artean etxebizitzaren arazoaren aurrean horrelako irtenbide bat emango den lehenengo urratsa dela gure herrian. Babes ofizialeko alokairuek dituzten abantailak askoz hobetoak dira, salmentan ematen direnek dituztenak baino. Alokairuen aldeko apustuak estrategikoa behar du izan. Denok barneratu behar dugu, politika hau aurrera eramatea, admisnitrazio publikoan gaudenon lehentasuna izan behar duela. Guk horretan ez dugu zalantzarik izan, eta horregatik hori egiteko gaitasuna duen administrazioarekin harremanak izan eta zerbait hitzartzeari ez diogu beldurrik. Garrantzitsua ez delako zein administrazio egiten duen zer, baizik eta dauden arazoei irtenbidea ematen jakitea da garrantzitsua.

Beti edukiko du norbaitek zerbait gehiago egin zitekeenaren zentsazioa, baina ezer ez egitetik, bapatean Zumaia bezalako herri batean 85 etxebizitza alokairuan ateratzea, egundoko aurrerapausoa dela deritzogu.



azaroaren 10ean ospatu zen plenoan onartu ziren, alderdi guztien aldeko botoekin, PNVrenak izan ezik -horiek abstenitu egin baitziren-, zergak eta tasak izoztea proposatzen zituzten ordenantza fiskalak. Gure koaliziotik aldeko botoa eman genion proposamen honi zentzuzkoa iruditzen baitzaigu KPI-a negatiboa izanda eta herritarrak jasaten ari diren krisi egoera honetan, Udaletxeko zergak eta tasak ez igotzea. Bestalde, esan nahi dugu Udaletxeko diru sarrerak asko jaitsi direla azken garai hauetan, baina gehien bat Foru Aldunditik iristen den dirua da gutxitu dena. Hau da, Udaletxeak diru sarreraren gutxitzea dela eta izan ditzakeen arazoak ez dira ordenantzak izozteagatik izango, Aldundiak emaniko dirua asko murriztu delako baizik. Larriena da Foru Aldundiak arazo hau edukita, elkarteen zerga jaitsi eta patrimonioarena kentzea erabaki duela. Jendeak jakin dezan, patrimonioaren zerga ordaintzen zutenen %93-ak 1,5 milioi euro baino gehiagoko dirutza zuen patrimonioan eta hauei zerga kendu zaie Foru Aldundiak 55 milioi euro jasotzeari uko eginez. Lotsagarria iruditzen zaigu egoera ekonomiko honetan gutxien sufritzen ari den jendearen aldeko politika fiskala erabiltzea eta Foru Aldundiari eskatzen diogu aldaketak egin ditzan arlo honetan, gehien duenak gehiago ordain dezan udaletxeetatik herritarren beharrei aurre egin ahal izateko..

En el pleno celebrado el 10 de Noviembre se aceptaron, con los votos a favor de todos los partidos excepto el PNV que se abstuvo, las ordenanzas fiscales que proponían congelar los impuestos y las tasas del Ayuntamiento. Desde nuestra coalición dimos nuestro voto a favor porque ante esta situación de crisis y teniendo en cuenta que el IPC es negativo, vemos con buenos ojos congelar los impuestos. Queremos decir también que los ingresos económicos del Ayuntamiento se están reduciendo considerablemente, debido en gran parte a la disminución del dinero que llega desde la Diputación. Lo más grave es que ante este problema la Diputación ha decidido reducir el impuesto de sociedades y eliminar el de patrimonio. Un dato, el 93% de los que cotizaban el impuesto de patrimonio poseían más de 1,5 millones de euros en patrimonio y a estos se les ha eliminado el impuesto dejando de facturar la Diputación 55 millones de euros. Desde Aralar-Alternatiba pedimos a la diputación que haga cambios en su política fiscal para que los que más tienen, más paguen y podamos hacer frente desde los ayuntamientos a las necesidades de los ciudadanos.



e stán próximos a terminar los proyectos del Plan especial (a cargo del Gobierno de España), las 2 fases del ambulatorio nuevo, el depósito de agua de Artadi y red de abastecimiento de Oikia, más los otros tres proyectos en ejecución también del Plan Especial, darán cierre a una mejora de infraestructuras y urbanísticas en Zumaia.

La utilización de Torre Berri como Gaztetze y escuela de música y danza, sin estar recepcionado el edificio, carecer del informe de actividad, y posible incompatibilidad de las dos actividades en el mismo edificio, también plan contra incendios y seguridad del mismo ya que el proyecto de ejecución no contemplaba, en el la actividad del gaztetze, creemos que es una **IRRESPONSABILIDAD POLÍTICA**, por parte de la comisión de gobierno. 1º legalidad y seguridad urbanística, informes previos correspondientes, y después actuación política consecuente con los informes. Aunque creemos que actividades del gaztetze, en cuanto a música, bebidas, fumar u otras sean compatibles con niñ@s ejecutando danza.

En el Pleno Extraordinario celebrado en noviembre se aprobaron las ordenanzas fiscales para el año 2010 y los estatutos del geoparque que se está gestionando entre Mutrico, Deba y Zumaia, entre otras cuestiones así como darnos por enterados a través de los decretos de alcaldía leídos en el Pleno por el alcalde del cese como Teniente alcalde y Presidenta de las comisiones de comercio y turismo de la concejala Pilar Etxabe, de EA, por lo menos hasta ese momento, hecho que pone al alcalde en minoría absoluta en la Comisión de Gobierno, "ya se verá". Por otra parte después de las aclaraciones aparecidas en los medios de comunicación, quisiéramos aclarar que nuestra postura no obedece más que al compromiso de dar y facilitar gestión en beneficio de Zumaia, aprobando o votando en contra las propuestas que consideramos negativas, sin tener en cuenta el color político de la Comisión de Gobierno. Ese ha sido, es y será el compromiso de este partido y estos concejales en particular en Zumaia, y Euskadi en general sobradamente demostrado en los Ayuntamientos que gobernados ya varios mandatos, como en el Gobierno Vasco. Por lo tanto que nadie entienda nuestros votos hacia una opción u otra, sino a favor de la convivencia y de la gestión municipal.

Azaroaren 26ko ohiko plenoa

Hirigintza:

1- Aho batez onartu zen Astilleros Balenciaga E.A. handitzea. **2-** Aho batez onartu zen kreditu aldaketaren onarpena ere (EAJ-PNV 4, Talde Mistoa 3, EA 2 eta EB-Aralar 2).

2- Eusko Jaurlaritza, Zumaia Lantzen eta Zumaia Udalaren arteko hitzarmena, aurrez hirigintza batzordean aztertu eta hurrengo udalbatzan eztaidatzekotan gelditu zen.

Talde Mistoak aurkeztutako proposamena:

1- Espainiar Estatuaren azken eraso errepresiboan aurrean aurkeztutako proposamena onartu egin zen, aldeko sei botorekin (Talde mistoa 3, EA 1 eta Aralar-Alternatiba 2). EAJren hiru boto kontra jaso zituen.

2- Azkenengo atxilotak direla eta EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako proposamen alternatiboak aldeko sei boto jaso zituen (EAJ 3, EA 1, eta Aralar-Alternatiba 2), eta kontrako hiru boto (Talde mistoa).

Udal gobernuak aurkeztutako proposamena:

1- Benedicto XVI. Aita Santuak preserbatiboaz egiten dituen azalpenen gainean EHGAMek egindako proposamena aldeko sei botorekin onartu zen (Talde Mistoa 3, EA 1, eta Aralar-Alternatiba 2), EAJko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren.

2- EAJ/PNVk EHGAMek aurkeztutakoaren aurrean plazaratutako proposamen alternatiboa aldeko sei botorekin onartu zen (EAJ 3, EA 1, eta Aralar-Alternatiba 2), Talde Mistoak abstentzioa bozkatu zuen.

Aho batez onartu zuten 'Egunkari Auzia'-ri buruzko proposamena.

N-634 Kostako errepidean izaten diren trafiko mozketak direla-eta, Talde Mistoak aurkeztutako proposa-

mena onartu egin zen, aldeko sei botorekin (Talde Mistoa 2, EA 1, Aralar-Alternatiba 2 eta PSE-EE 1). Proposamenak hiru boto kontra jaso zituen (EAJ).

Azaroaren 10eko ezohiko plenoa

Gai ordena hasi aurretik, onartu berri diren hiru alkatetzak dekreturen berri eman zuen Iñaki Agirrezabalaga Zumaia alkateak. Horien arabera, Pilar Etxabe zinegotzia ez da aurrerantzean Gobernu Taldeko kide izango. Horrekin batera, bigarren alkateorde eta turismo, kultura eta merkataritza batzordeetako buru izateari ere uko egingo dio. Aurrerantzean, alkateak berak beteko ditu hiru batzorde horien lehendakari postuak.

Ondoren, eguneko aztergaia lantzeari hasiera eman zioten eta ondorengoak izan ziren gaiak eztabaidatu ondorengo bozketen emaitzak:

1- Ogasuna:

- 2010. ekitaldirako ordenantza fiskalak onartu ziren aldeko zazpi botorekin (Talde Mistoa 2, EB-Aralar 2, EA 1, PSE-EE 1 eta Pili Etxabe 1). EAJko lau zinegotziak abstenitu egin ziren.

- 2010erako taxi zerbitzua-
ren prezioak onartu ziren aldeko bederatzita botorekin (EAJ 4, Talde Mistoa 2, EA 1, PSE-EE 1 eta Pili Etxabe 1). EB-Aralar udal taldearekin bi boto kontra jaso zituen.

2- Hirigintza eta ingurugiro:

Euskal Kostaldeko geoparkea kudeatzeko elkartearen (Geogarapen) estatutuen onarpena gauzatu zen aldeko zazpi botorekin (EAJ 4, EA 1, PSE-EE 1, eta Pili Etxabe 1). Lau boto kontra jaso zituen (Talde Mistoa 2, EB-Aralar 2).

3- Aho batez onartu zen Samuel Ruiz Morenoren partez, ordezko bake-epaile berraren izendapena. Aurrez jarritako irizpideei jarraiki, Agustín Zubimendi Martikoren izango da aurrerantzean ordezko bake-epailea.

agenda *abendua diciembre / urtarrila enero*



Deialdiak:

- Gabonetako erakusleihu lehiaketa. *Concurso de escaparates*.
- Lankidetzeta astea + Herritarren topaketak: Abenduaren 14tik 20ra. *Semana de la cooperación y encuentros sobre la diversidad*.
- Bigarren eskuko azoka: Abenduaren 12an. *Feria de segunda mano*.
- Klarinete Maratoia: Abenduaren 17tik 20ra. *Maratón de Clarinete*.

Abendua / Diciembre

Asteazkena, 2 Miércoles

18:00etan Zumaiaiko Herri Eskolan (Sagarbiden) "Bidaia intimoak" Jon Maiak aurkeztuta. *Documental 'Bidaia intimoak'*.
16:30ean, Gaztegunean, euskal mahai-jokoak. *Juegos dinámicos en el Gaztegunee*.

Osteguna, 3 Jueves

19:00etan 'Internet Kafe' (Julene Azpeitia sari banaketa) Aita Marin.
Entrega de premios del concurso de cuentos Julene Azpeitia.
22:15ean zine foruma 'Los mundos de Coraline' *cine forum*.

Osteguna, 10 Jueves

19:00etan 'Natura 2000' hitzaldia Torreberri. *Charla, 'Natura 2000'*.

Ostirala, 11 Viernes

18:00etan Ludotekan, antzerkia BEHIBI'S TALDEAREN 'Rosi €rosi'.
Obra teatral Rosi €rosi en la Ludoteka.
19:00etan Algorri Zentroan hitzaldia: 'Zumaiaiko Ondare Industrialaz'.
Charla en el centro Algorri: el patrimonio industrial de Zumaia.

Larunbata, 12 Sábado

19:00etan komentuan, Kontzertua: Juan Carlos Irizar eta lagunak.
Concierto de Juan Carlos Irizar en el convento.

Igandea, 13 Domingo

12:00etan Teatro 'Munstruak akatu' Aita Marin. *Teatro en Aita Mari*.

Asteazkena, 16 Miércoles

17:30ean ipuin kontaketa 'Kontu Kantoi', haur liburutegian. *Recital de cuentos para niños Kontu Kantoi en la biblioteca*.

Osteguna, 17 Jueves

22:15ean Aita Marin zine foruma, 'Un cuento de Navidad' *cine forum*.

Ostirala, 18 Viernes

22:00etan Aita Marin 'Cocidito madrileño 2'. *Obra 'Cocidito madrileño'*.
22:00etan Ubillosen, Kafe Musikala. *Café musical en Ubillos*.

Larunbata, 19 Sábado

19:30ean Komentuan, ZUMBen elkartasun kontzertua. *Concierto solidario de la banda en el convento*.

Igandea, 20 Domingo

12:30ean Komentuan, Maratoiko ikasleen kontzertua. *Concierto de los alumnos de la Maratón en el convento*.
19:30ean Komentuan, Maratoiko amaiera kontzertu berezia CAMERA-TA CAMBRENSIS Orkestrarekin. *Concierto final de la Maratón*.

Astelehena, 21 Lunes

Santo Tomas festa Kantauri plazan. *Fiesta de Santo Tomas*.

Asteartea, 22 Martes

18:00etan Ondartxo plazan, Musika Eskolako gabonetako jaialdia.
Actuación de la escuela de música.

Osteguna, 24 Jueves

15:30ean Gabon Koruaren saioa kalez kale. *Actuación del Coro*.
17:00etan Aita Marin, Gabon Abestien lehiaketa Erkibe kultur elkarteak antolatuta. *Concurso de villancicos de la mano de Erkibe*.
18:30ean Jaiotza ikuskizuna. *Exposición de belenes*.

Larunbata, 26 Sábado

11etatik aurrera Gabonetako Haur Parkea Herri Eskolako patioan.
Parque infantil de navidad en la Herri Eskola.
22:00etan Aita Marin, Bertsolarien Saioa. *Actuación de bertsolaris*.

Asteartea, 29 Martes

16:30ean Aita Marin, haurrentzako zinema. *Cine para niños/as*.

Asteazkena, 30 Miércoles

17:30ean ipuin kontaketa Apika taldearekin haur liburutegian. *Recital de cuentos de la mano de Apika*.

Urtarrila / Enero

Larunbata, 2 Sábado

17:00etan Haurrentzat festa, DJonekin. *Fiesta para niños con DJon*.
19:00etan Torreberri hasita, Bertso-poteoa Trikitilariekin. *Chiquiteo en compañía de bertsolaris*.

Igandea, 3 Domingo

12:00etan haur antzerkia, GLU GLUren 'Anbotoko Mari' *teatro infantil*.

Astelehena, 4 Lunes

16:30ean Aita Marin, haurrentzako zinema. *Sesión de cine para niños*.
18:30ean Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea. *Recogida de cartas para los Reyes Magos*.

Asteartea, 5 Martes

18:00etan, Errege Magoen desfilea. *Cabalgata de los Reyes Magos*.

Osteguna, 14 Jueves

22:15ean Aita Marin zine foruma: 'Si la cosa funciona' *cine forum*.

Larunbata, 16 Sábado

20:00 eta 22:30ean antzerkia, TXALOREN 'Las vacaciones de Josefa'.
Teatro: 'Las vacaciones de Josefa'.

Larunbata, 23 Sábado

19:00etan CIUDAD DE EIBAR ganbara orkestra.
Orquesta de Eibar.

Osteguna, 28 Jueves

22:15ean Aita Marin zine foruma
'La cuestión humana' *cine forum*.

Ostirala, 29 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia
'Arrastoa'. *Obra teatral 'Arrastoa'*.

